# I ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE ALAVA I

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

**105**

**2/2002 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 8ko Diputatuen Kontseiluarena; nekazaritza, abelzaintza eta arrantzako erregimen bereziko konpentsazioen ordainketa eskatzeko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 341 eredua onartzen duena.**

Balio Erantsiaren Zerga arautzen duen urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 131.1 artikuluak ezartzen duenez, Araugintzako Foru Dekretu honek zehazten dituen konpentsazioak dagokion Herri Ogasunak ordainduko ditu, bai Europako Batasuneko beste Estatu kide batetara exportatutako, bidalitako edo garraiatutako ondasunei dagozkienak, bai Zergaren aplikazio-eremutik kanpo finkatutako jasotzaileei emandako erregimen bereziaren barne dauden zerbitzuei dagozkienak.

Bestalde, apirilaren 27ko 124/1993 19ko Foru Dekretuak onartutako Balio Erantsiaren Zergaren Araudiko 48.1 artikuluak ezartzen duenez, Zergaren Arauko 131.1 artikuluaren arabera, Ogasunak egin beharreko konpentsazioen ordainketa-eskaria hiruhileko natural bakoitzaren ondorengo hogeita bost egun naturaletan egin beharko da Foru Aldundian, Ekonomi Itunean zehaztutakoaren arabera. Hala ere, urteko azken hiruhileko naturalari dagokion itzulketa egiteko, hurrengo urteko urtarrileko lehenengo hogeita hamar egun naturaletan aurkeztu ahal izango da. Eskaria onartutako ereduaren araberakoa izan beharko da.

Hori dela eta, Zerga Araudiko 48 artikuluan jasotako aurrikuspena garatzeko, beharrezkotzat jo da nekazaritza, abelzaintza eta arrantzako erregimen berezipean dauden subjektu pasiboei Ogasunak ordaindu beharreko konpentsazioen beste eskari-eredu bat onartzea, Balio Erantsiaren Zergaren Arauak 131.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrela, martxoaren 20ko 369/1986 Foru Dekretuak onartu zuen eredua ordezkatuko da, izan ere, igarotako urteen ondorioz formatoa, arau-erreferentziak eta operazioen definizioak zaharkituak daude.

Halaber, Foru Dekretu hau onartzea frogatuta geratzen da, eredu hori europako moneta bakarrari egokitu behar baitzaio.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatu titularraren proposamenez, eta gaur egindako bileran Diputatuen kontseiluak eztabaidatu ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

**LEHENENGOA.- 341 eredua onartzea.**

341 eredua onartu da, “nekazaritza, abelzaintza eta arrantzako erregimen bereziko konpentsazio-ordainketa eskatzeko”. Eredu horrek bi ale dauzka: bat Administrazioarentzat eta bestea subjektu pasiboarentzat.

**BIGARRENA.- 341 eredua aurkeztu behar dutenak.**

341 eredua nekazaritza, abelzaintza eta arrantzako erregimen bereziari lotutako honako subjektu pasibo hauek aurkeztu beharko dute: Europako Batasuneko beste Estatu kide batetara exportatutako, bidalitako edo garraiatutako ondasunak eman dituztenak eta Zergaren aplikazio-eremutik kanpo finkatutako jasotzaileei zerbitzuak eman dizkietenak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratuko da martxoaren 20ko 369/1986 Foru Dekretua, Balio Erantsiaren Zergari dagozkion hainbat eredu onartu zituena.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau indarrean sartuko da Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko urtarrilaren 8an.– Diputatu Nagusia, RAMON RABANERA RIVACOBA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatu titularra, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

**105**

**DECRETO FORAL 2/2002, del Consejo de Diputados de 8 de enero, que aprueba el modelo 341 del Impuesto sobre el Valor Añadido, de solicitud de reintegro de compensaciones en el régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca.**

El artículo 131 número 1º del Decreto Foral Normativo 12/1993 de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido, dispone que el reintegro de las compensaciones a que se refiere el artículo 130 de este Decreto Foral Normativo se efectuará por la Hacienda Pública competente por las entregas de bienes que sean objeto de exportación, o de expedición o transporte a otro Estado miembro de la Unión Europea y por los servicios comprendidos en el régimen especial prestados a destinatarios establecidos fuera del territorio de aplicación del Impuesto.

Por su parte, el artículo 48 número 1 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido aprobado por el Decreto Foral 124/1993 de 27 de abril, establece que las solicitudes de reintegro de las compensaciones que, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 131, número 1º de la Norma del Impuesto, deba efectuar la Hacienda deberán presentarse en los supuestos que proceda, de conformidad con lo establecido en el Concierto Económico, en la Diputación Foral, durante los veinticinco primeros días naturales posteriores a cada trimestre natural. No obstante, la solicitud de devolución correspondiente al último trimestre natural del año podrá presentarse durante los treinta primeros días naturales del mes de enero inmediatamente posterior. La solicitud deberá ajustarse al correspondiente modelo aprobado.

En consecuencia, en desarrollo de la previsión contenida en el artículo 48 del Reglamento del Impuesto, se considera necesario aprobar el nuevo modelo de solicitud de reintegro de compensaciones que debe efectuar la Hacienda Pública a los sujetos pasivos acogidos al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 131, número 1º de la Norma del Impuesto sobre el Valor Añadido que sustituya al modelo que, a tal efecto, se aprobó por el Decreto Foral 369/1986 de 20 de marzo, cuyo formato, referencias normativas y definición de las operaciones resultan desfasadas como consecuencia del tiempo transcurrido desde su aprobación.

La aprobación del presente Decreto Foral se justifica, asimismo, por la necesaria adecuación del citado modelo a la adopción de la moneda única europea.

En su virtud, a propuesta del Diputado titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada por el mismo en el día de hoy,

DISPONGO:

**PRIMERO.- Aprobación del modelo 341.**

Se aprueba el nuevo modelo 341 de “solicitud de reintegro de compensaciones en el régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca”. Dicho modelo consta de dos ejemplares: ejemplar para la Administración y ejemplar para el sujeto pasivo.

**SEGUNDO.- Obligados a presentar el modelo 341.**

El modelo 341, será presentado por los sujetos pasivos que, estando acogidos al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca, hayan realizado entregas de bienes que sean objeto de exportación o de expedición o transporte a otro Estado miembro y por los servicios comprendidos en el régimen especial prestados a destinatarios establecidos fuera del territorio de aplicación del Impuesto.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto Foral 369/1986, de 20 de marzo, por el que se aprobaron diversos modelos de impresos correspondientes al Impuesto sobre el Valor Añadido.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 8 de enero de 2002.– El Diputado General, RAMON RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila — Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

## BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen berezian konpentsazioak itzultzeko eskaera

## *IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO*

*Solicitud de reintegro de compensaciones en el régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca*

341

**IDENTIFIKAZIOA / *IDENTIFICACION***

TXARTELA IPINTZEKO GUNEA / *ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA*

**SORTZAPENA / *DEVENGO***

EKITALDIA / *EJERCICIO*

EPEALDIA / *PERIODO* T

**KONPENTSAZIOA / *COMPENSACIÓN***

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **01** | | **04** | | **07** | |
| **02** | | **05** | | **08** | |
| **03** | | **06** | | **09** | |

ZENBATEKO OSOA
*IMPORTE TOTAL* **(07+08+09)** ................ **10**

ADMINISTRAZIOAK BETE BEHARREKO GUNEA
*ESPACIO RESERVADO PARA LA ADMINISTRACIÓN*

**SUBJEKTU PASIBOA / *SUJETO PASIVO***

DATA / *FECHA:*

SINADURA ETA ZIGILUA:
*FIRMA Y SELLO:*

ITZULTZEKO KOPURUA
*IMPORTE A DEVOLVER*

**10**

KONTU-BEZERO KODEA (KBK) / CÓDIGO CUENTA CLIENTE (CCC)

| ENTITATEA *ENTIDAD* | BULEGOA *OFICINA* | KD *DC* | KONTU ZK. *N.º CUENTA* |
|---|---|---|---|
| **301** | **302** | **303** | **301** |

RE. 01/322

**P.S.N. / *P.V.P.:* 0,12€**

## 341 EREDUAREN JARRAIBIDEAK

Ondoren adierazten diren subjektu pasiboek aurkeztu beharko dute eredu hau: nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen bereziaren pean izanik, EBko kide den beste estatu batera esportatu, bidali edo garraiatzen diren ondasunen emateak egin dituztenak, baita ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 131.1. artikuluan erabakitakoaren arabera, zergaren aplikazio lurraldetik kanpoan finkatuta dauden hartzaileei erregimen bereziaren barruan dauden zerbitzuak eman dizkietenak.

**IDENTIFIKAZIOA**

Itsatsi identifikazio etiketa horretarako dagoen gunean.

**SORTZAPENA**

Ekitaldia: aitorpena zein ekitaldiri dagokion adierazi behar da.
Epealdia: ondoko taularen arabera:
1T = 1 hiruhilekoa
2T = 2 hiruhilekoa
3T = 3 hiruhilekoa
4T = 4 hiruhilekoa

**KONPENTSAZIOA**

**01-03 laukiak:** epealdian egindako honako hauen zenbateko osoa jarri behar da. BEZari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 130. artikuluko bosgarren atalean ezarritako konpentsazio ehuneko bakoitzari dagokiona. EBko kide den beste estatu batera bidali edo garraiatzen diren ondasunen emateak, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako erregimen bereziaren barruan eginak, eta aipatu Foru Dekretuaren 131.1 artikuluan aipatzen den zergaren aplikazio lurraldetik kanpoan finkatuta dauden hartzaileei eman zaizkien eta erregimen bereziaren barruan daduden zerbitzuak.

**04-06 laukiak:** BEZaren Foru Dekretuaren 130. artikuluko bosgarren atalean ezarritako konpentsazio ehunekoak jarri behar dira.

**07-09 laukiak:** jarri konpentsazioaren zenbatekoa, hots, 01-03 laukietan jarritako balioari 04-06 laukietan ezarritako konpentsazio ehunekoa aplikatzearen emaitza.

**SUBJEKTU PASIBOA**

Subjektu pasiboak sinatu behar du inprimakia.

**ITZULKETA**

Jarri konpentsazioa ordaintzea nahi duzun kontuaren, banketxe edo kutxaren eta bulegoaren zenbakia, baita konpentsazioaren zenbatekoa ere.

**AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA**

Aitorpen hau, hiruhileko natural bakoitzaren ondoko lehenengo hogeita bost egunen barruan egin behar da. Urteko azkenengo hiruhileko naturalari dagokiona, hurrengo urteko urtarrileko lehenengo hogeita hamar egunen barruan aurkeztu behar da.
341 eredua Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuan aurkeztu behar da.

## INSTRUCCIONES MODELO 341

Presentarán este modelo los sujetos pasivos que, acogidos al régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca, hayan realizado entregas de bienes que sean objeto de exportación o de expedición o transporte a otro Estado miembro y por los servicios comprendidos en el régimen especial prestados a destinatarios establecidos fuera del territorio de aplicación del Impuesto, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 131.1º del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

**IDENTIFICACIÓN**

Adhiera la etiqueta identificativa en el espacio reservado al efecto.

**DEVENGO**

Ejercicio: se hará constar aquel al que corresponde la declaración.
Período: según la tabla siguiente:
1T = 1er trimestre
2T = 2º trimestre
3T = 3er trimestre
4T = 4º trimestre

**COMPENSACIÓN**

**Casillas 01-03:** se consignará el importe total, en el período, de las entregas de bienes que sean objeto de expedición o transporte a otro Estado miembro realizadas en el ámbito del régimen especial de la agricultura, ganadería y pesca y de los servicios comprendidos en el régimen especial prestados a destinatarios establecidos fuera del territorio de aplicación del Impuesto a que se refiere el artículo 131.1º del Decreto Foral del IVA, correspondiente a cada porcentaje de compensación fijado en el apartado cinco del artículo 130 del citado Decreto Foral.

**Casillas 04-06:** se consignarán los porcentajes de compensación establecidos en el apartado cinco del artículo 130 del Decreto Foral del IVA.

**Casillas 07-09:** se hará constar el importe de la compensación, resultado de aplicar al valor reseñado en las casillas 01-03 el porcentaje de compensación fijado en las casillas 04-06.

**SUJETO PASIVO**

El impreso deberá ir firmado por el sujeto pasivo.

**DEVOLUCIÓN**

Se hará constar el número de la cuenta, Banco o Caja y Oficina donde desee que le sea abonada la compensación, así como el importe de ésta.

**PLAZO Y LUGAR DE PRESENTACIÓN**

La presentación de esta declaración se efectuará en los veinticinco primeros días naturales posteriores a cada trimestre natural. La correspondiente al último trimestre natural del año deberá presentarse durante los treinta primeros días naturales del mes de enero del año siguiente.
El modelo 341 deberá ser presentado en el Servicio de Relación con los contribuyentes.